2019ko irailean erregistratutako langabezia

2019ko irailean zehar LANBIDEko bulegoetan %2,11 langabe gutxiago erregistratu dira, langabe kopurua 113.634 da. Krisia hasi zenetik izandako langabeziaren jaitsiera handiena erregistratu da hil honetan, eta krisi aurreko zenbakietan kokatzen da. Egia da ere, aurreko hilean izandako langabeziaren hazkundea esperotakoa baino handiagoa izan zela, eta izandako jaitsierak hazkunde hori konpentsatu du.

Langabetuen hilabeteko saldoaren bilakaera



	ira-05	ira-06	ira-07	ira-08	ira-09	ira-10	ira-11	ira-12	ira-13	ira-14	ira-15	ira-16	ira-17	ira-18	ira-19
Series1	-374	-245	-206	-108	3076	1256	1177	4014	3379	349	-347	1002	-116	-569	-244

Urte arteko eboluzioari dagokionez, 9.403 pertsonetan murrizten da langabezia. Uztaila eta abuztuak urte arteko saldoak atzera pausu bat eman zuen, baina hil honetan hobera egin du, 2018ko abuztuak geroztik izandako urte arteko bilakaera hoberena erregistratu da.

Erregistratutako langabetuen urte arteko saldoaren bilakaera



- **SEXUA**

Azken hilabetean langabezia gizonezkoen artean gehiago murriztu da (% 2,44) emakumezkoen artean baino (% 1,86). Urte arteko saldoari dagokionez, bilakaera berbera erregistratu da, bai gizonezkoen artean, baita emakumezkoen artean ere % 7,64 murriztu da langabezia. Gaur egun langabeen % 57,6 emakumeak dira. Krisia hasi zenean, aldiz, langabe kopurua berdintsua zen bi sexuetan, gizonezkoen artean langabezia orain baino handiagoa zen eta. Gizonezkoen artean krisiaren eragina handiago izan zen, baina talde hau errekuperazio ahalmen handiago erakusten ari da.

- **ADINA**

Azken hilabete honetan langabezia 25 urte azpikoen artean hazi da. Murrizketa handiena 25-44 urte artekoen tartean izan da Urte arteko saldoan, jaitsiera handiena 35 eta 44 urte arteko tartean izan da (-% 12,68). 54 urtez gorakoen artean langabezia motel murrizten da, lan munduratzearen zailtasunak agerian utziz biztanleria helduaren artean. Ekonomia, egun, hobetzen ari bada ere, egiturazko langabezia handia utziko du krisiak langabe zaharrenen artean.

- **JARDUERA EKONOMIKOA**

Irailean zehar, lehen sektoreak izan du bilakaera hoberena kopuru erlatiboetan (-% ;,19), kopuru absolutuetan, aldiz, zerbitzuen sekotrea izan da (-2.050). Eraikuntza sektorean langabezia % 3,67 murriztu da eta industrian % 2,27. Aurretik enplegurik izan ez dutenen artean % 3,25 hazi da. Balore erlatiboetan eta aurreko urteko datuarekin alderatuz eraikuntza sektoreko murrizketa, % 12,15ko jaitsiera, eta lehen sektorekoa (% 13,57ko jaitsiera) nabarmentzen dira.

Datuak zehatzago aztertuta, langabezia murrizketa handienak izan dituzten jarduerak hauek izan dira: hezkuntza (-976), enpleguarekin erlazionatutako jarduerak (-376), janari eta edarien zerbitzuak (-311), nekazaritza eta abeltzaintza (-217) eta eraikinen eraikuntza (-147). Langabezia hazkunde handiena erregistratu dutenak hauek izan dira: egoitzetako laguntza (+179), etxebizitzak langile enplegatzaile gisa (+117), osasun jarduerak (+86) eta eraikinetako zerbitzuak eta lorezaintza jarduerak (+73).

- **LANGABEZIAREN IRAUPENA**

Hilabete honetan, epe laburreko langabezia 2.663 pertsonatan murriztu da eta epe luzekoa 219 pertsonatan hazi. Urte osoari begiratuz gero, ikusten da jaitsiera handiagoa izan dela epe luzeko langabeen artean (% 12,5a) epe laburrekoen artean baino (% 2,16). Ekonomiaren susperraldia, bada, aukerak eskaintzen ari da langabe kronifikatuenei.

- **LANGABETUEN KOKAPEN GEOGRAFIKOA**

Irailean langabezia hiru lurraldeetan murriztu da: Araban %3, Gipuzkoan % 1,22 eta Bizkaian % 2,24.

Urte arteko saldoari erreparatuz Bizkaiak erregistratu du eboluzio onena % 8,36ko jaitsierarekin; Gipuzkoak jarraitzen dio % 7,57ko jaitsierarekin eta azkenik Araban % 5,20 murriztu da.

Hiriburuak aztertuta, Bilbon azken hilean 640 pertsonatan murriztu da langabezia, Gasteizen 416 pertsonatan eta Donostian 113 pertsonatan. Langabezia gehien murriztu diren eskualdeak Ezker Eskualdea (-273), Txorierri (-116), Durangaldea (-115) eta Oarsoaldea (-107) izan dira. Aldiz, Urola Kostan (+68), Deba Beherean (+25), Uribealdean (+16) eta Arabako Ibarrean (+3) langabezia hazi egin da.

Hil honetan erregistratutako langabezia handiena duten udalerriak honako hauek izan dira; Oion (% 17,75), Sestao (% 17,46), Balmaseda (% 15,94), Lanestosa (% 15,24) eta Santurtzi (% 14,75).

- **LANGABEZIA-PRESTAZIOA**

2019ko irailean 38.017 langabek kobratu dute langabezia-prestazioaren bat, hau da, aurreko hilean baino 2.149 langabe gutxiagok. Murrizketa hau, laguntzarako eskubidea zuten hezkuntza edo ostalaritza sektoretik langabeziara pasatako langileak berriz lan merkatura bueltatu direlako izan da. Langabeen % 33,5ek du gizarte-prestazio hori jasotzeko eskubidea. 22.279 langabek jasotzen dute ordaindutakoaren araberako prestazioa, hau da, langabeen % 19,6 dira horiek. 15.738 langabek (% 13,8), berriz, langabeziagatiko prestazioa jasotzen dute. Gipuzkoa

da babes tasa handiena duen lurraldea (% 36,4), Araban eta Bizkaian % 32koa eta % 32,6koa da, hurrenez hurren.

Aurreko hilarekin alderatuz, langabeziagatiko estaldura-tasa 1.15 puntu murriztu da; aurreko urtearekin alderatuz 4.04 hazi da.

- **IKASKETA MAILA**

Langabeen % 60k (68.187 lagun), oinarrizko ikasketak ditu, gehienez ere. Azken hilean, oinarrizko prestakuntza dutenen artean 776 langabetu gutxiago erregistratu dira. Talde horretan % 8,43 jaitsi da langabezia azken urtean. Azken urtean gehien murriztu den taldea izan da.

Batxilergo-titulua duten pertsonak langabeen % 8,8 dira. Talde horretan % 2 murriztu da langabezia azken hilean, eta azken urtean % 8,31.

Lanbide-heziketa ikasi eta langabezian dauden lagunak 20.027 dira, hau da, langabeen % 17,6. Talde hau irailean zehar % 3,1 murriztu da, eta azken urtean % 6,2.

Azkenik, langabeen % 13,6k (15.408 lagun), egin ditu unibertsitateko ikasketak. Ikasketa maila hau duten langabetuen artean % 5,12 murriztu da langabezia azken hilabetean eta % 5,55 murriztu azken urtean. Hezkuntza sektorearen berraktibatzeak azaltzen du talde honetan izan den hil arteko bilakaera positiboa, talde guztietan hoberena.

- **JATORRIA**

Langabeen % 15,2 (17.360 lagun), atzerritarrak dira. Aurreko hilarekin alderatuta, ikusten da langabezia % 0,28 hazi dela atzerritarren artean, eta % 2,52 murriztu bertakoen artean.

Langabe atzerritarren % 35,6a Afrika iparraldekoak dira, % 21,5a Latinoamerikatik datoz, % 19,8 Europako Esparru Ekonomikotik, % 13,5a Saharaz hegoaldeko Afrikatik, eta % 5,4, azkenik, Asiatik. Irailean Europako Esparru Ekonomikotik eta Afrika iparraldetik etorritako pertsonen artean murriztu da gehien langabezia (-221 eta -171, hurrenez hurren).

- **KONPARAKETA ESTATUKO DATUEKIN**

Estatuan 13.907 langabe gehiago daude aurreko hilean baino (% 0,45eko hazkundea). Guztira 3.079.711 langabe daude erregistratuta; EAEn, berriz, % 2,11 murriztu da. EAEko mugakide diren autonomia-erkidegoetan langabeziaren bilakaera ondorengoa izan da: Nafarroan -% 2,08, Errioxan -% 6,14, Kantabrian +% 6,77 eta Gaztela eta Leonen +% 0,48. Katalunian % 0,32 hazi da eta Madrilen % 0,06 murriztu da.

Urte arteko bilakaeran, langabezia gutxiago murriztu da Estatuan (-% 3,83) EAEren aldean (-% 7,64).

Lan-eskatzaile langabeak 2019ko irailean

	ira-2019	abu-2019	Saldoa	Bil %
SEXUA:				
GIZONEZKOAK	48.154	49.357	-1.203	-2,44
EMAKUMEZKOAK	65.480	66.721	-1.241	-1,86
25 URTEZ AZPIKOAK:				
GUZTIRA	7.991	7.608	383	5,03
GIZONEZKOAK	4.021	3.838	183	4,77
EMAKUMEZKOAK	3.970	3.770	12	5,31
25-44 URTE:				
GUZTIRA	47.933	49.874	-1.941	-3,89
GIZONEZKOAK	19.317	20.202	-885	-4,38
EMAKUMEZKOAK	28.616	29.672	-1.056	-3,56
45 URTEZ GORAKOAK:				
GUZTIRA	57.710	58.596	-886	-1,51
GIZONEZKOAK	24.816	25.317	-501	-1,98
EMAKUMEZKOAK	32.894	33.279	-385	-1,16
SEKTOREA:				
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA	2.165	2.384	-219	-9,19
INDUSTRIA	13.423	13.735	-312	-2,27
ERAIKUNTZA	7.956	8.259	-303	-3,67
ZERBITZUAK	76.114	78.164	-2.050	-2,62
AURREKO ENPLEGURIK GABE	13.976	13.536	440	3,25
LURRALDE HISTORIKOA:				
ARABA	18.954	19.540	-586	-3,00
BIZKAIA	29.714	30.082	-368	-1,22
GIPUZKOA	64.966	66.456	-1.490	-2,24
EAE	113.634	116.078	-2.444	-2,11

	Langa-betuak	Erregistratuta-ko langabezia indizea	Aurreko hilabetea		Aurreko urtea	
			Saldoa	Bil %	Saldoa	Bil %
Bidasoa Behera	3.874	10,5%	-44	-1,12	-235	-5,72
Oarsoaldea	3.394	9,5%	-107	-3,06	-310	-8,37
Donostia-S.Seb.	7.171	8,2%	-113	-1,55	-700	-8,89
Donost.Mendebaldea	2.902	8,1%	-102	-3,40	-267	-8,43
Tolosaldea	1.913	8,3%	-35	-1,80	-266	-12,21
Urola Erdia	1.178	7,9%	-1	-0,08	-128	-9,80
Goiherri	1.604	7,7%	-41	-2,49	-131	-7,55
Deba Garaia	2.387	8,0%	-15	-0,62	-161	-6,32
Deba Behera	2.745	10,5%	25	0,92	-127	-4,42
Urola Garaia	1.072	9,0%	-3	-0,28	-21	-1,92
Urola Kosta	1.474	6,7%	68	4,84	-88	-5,63
GIPUZKOA	29.714	8,6%	-368	-1,22	-2.434	-7,57
Vitoria-Gasteiz	14.935	12,1%	-416	-2,71	-787	-5,01
Aialako Ibarra	2.180	11,6%	-57	-2,55	-173	-7,35
Arabar Errioxa	565	10,7%	-90	-13,74	-68	-10,74
Arabako lautada	659	9,0%	-14	-2,08	-4	-0,60
Gorbeia inguruak	281	6,1%	-15	-5,07	10	3,69
Arabako Ibarrak	359	7,4%	3	0,84	-40	-10,03
Arabako Mendialdea	99	6,7%	-4	-3,88	-11	-10,00
ARABA	18.954	11,6%	-586	-3,00	-1.040	-5,20
Gobela	4.818	9,3%	-74	-1,51	-267	-5,25
Txorierri	2.122	9,2%	-116	-5,18	-279	-11,62
Uribealdea	2.917	8,9%	16	0,55	-133	-4,36
Durangaldea	3.167	8,5%	-115	-3,50	-128	-3,88
Busturialdea	2.103	9,7%	-12	-0,57	-134	-5,99
Lea-Artibai	955	8,0%	-3	-0,31	-50	-4,98
Enkarterriak	2.053	13,2%	-34	-1,63	-224	-9,84
Arratia-Zornotza	1.422	8,2%	-95	-6,26	-142	-9,08
Arratia-Nerbioi	1.245	9,5%	-34	-2,66	-170	-12,01
Bilbo	22.400	13,4%	-640	-2,78	-2.439	-9,82
Ezkerraldea	17.160	13,7%	-273	-1,57	-1.491	-7,99
Ibaizabal	4.479	11,2%	-101	-2,21	-437	-8,89
BIZKAIA	64.966	11,6%	-1.490	-2,24	-5.929	-8,36
EAE	**113.634**	**10,6%**	**-2.442**	**-2,10**	**-9.401**	**-7,64**

* Bizkaia eta Arabako eskualdeen batura ez dator bat lurraldeko totalarekin, Orduña udalerria Bizkaikoa izanik Arabako Aialako Ibarra eskualdean kokatzen baita.